



“Nuestra Señora de Arrate” Klinikaren Azpifuntsa



Identifikazio-eremua

Erreferentzia-kodea	ES20600AME_FCNSA
Izenburua:	“Nuestra Señora de Arrate” Klinikaren Fundoa.
Data	1976/1936
Deskripzio maila	02 - Azpifuntsa
Bolumena:	5 metro lineal.

Testuinguruaren eremua

Ekoizlearen izena.

“Nuestra Señora de Arrate” Klinika.

Historia instituzionala

“Nuestra Señora de Arrate” Klinika 1950ean jaio zen erakunde pribatu legez Dos de Mayo kalearen 27an (gaur egun Toribio Etxebarria kalea); geroxeago, 1957an, lekuz aldatu eta Pagei kaleko 5ean finkatu zen. Eskualdeko zerbitzuak INSALUDEkin hitzartzeko behar zuen besteko kalifikazioa eskuratzea ezinezkoa zitzaionez, klinikak ateak itxiko zituela iragarri zuen. Horren aurrean, erakunde politiko eta administratiboek, INSALUDEk eta Eibarko udalak, klinika mantentzea erabaki zuten, eskualdean bakarra zelako. Horrela sortu zen Nuestra Señora de Arrate Fundazio Publikoa, Gizarte Segurantzako onuradunei, edo, orokorrean, eskualdeko edozein pertsonari, osasun laguntza, laguntza medikoa eta kirurgikoa emateko xedez. 1984ko martxoan onartu ziren Fundazioaren Estatutuak; gobernu batzarrean udal ordezkariak eta Insaludeko ordezkariak zeuden. 1992an, Mendaroko Ospitalea martxan jarri zenean, klinika ixtea erabaki zen.



Artxibo-historia.

"Nuestra Señora de Arrate" Klinikaren dokumentazioa, Fundazioaren izenean ziharduen hango administrariak entregatu zuen 1992ko azaroan. Sailkatu eta antolatu ondoren Udal Artxiboan utzi zen. Hortxe aurkitzen da gaur egun.

Sartzeko modua.

1992ko azaroaren 19ko fondo-transferentzia bidez.

Edukiaren irismena eta egitura

Irismena eta edukia.

Dokumentazio gehiena izaera administratibokoa da: Aktak, sarrera-erregistroak eta altak, nominak, fakturak, hornitzaileen zerrenda... Dokumentazio horren barruan ez dago historial klinikorik.

Balorazioa, aukeraketa eta ezabaketa.

Bai. Laburpen Bankarioen seriea ezabatu egin zen.

Sarrera gehiago.

Ez

Antolamendua.

Organigrama bat sortu zen dokumentazioa aztertu ondoren lau ataletan banatuta: Zuzendaritza, Pertsonala, Kontuhartzailletza, Diru-bilketa.

Erabilera eta sarbidea: Baldintzak

Eskuratzeko baldintzak

Sarrera librea, ondoko lege hauek aurreikusitako muga edo murrizketekin: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Datu Pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, eta udalak berak onetsitako Segurtasun Dokumentua.

Erreproduktzioarako baldintzak.

Dokumentuen erreproduktzioa librea da, beti ere aurreko legeriak aurreikusitako mugekin.

Hizkuntza / dokumentuen idazkera (k).

Gaztelera/Euskara.

Dokumentazio elkartua

Jatorrizko dokumentuen existentzia eta kokalekua.

Eibarko Udala

Deskribapen Kontrola





Artxibozainaren oharra

Yolanda Ruiz Urbón artxibariak egindako deskripzioa udal dokumentazioa iturritzat hartuta

Arauak

ISAD(G): Deskribapen artxibistikorako nazioarteko arau orokorra, 2000

Deskribapen-data

2008-04-07

